

Hezkuntza

LUDOTEKA

ZER DA LUDOTEKA?

Umeak askatasun osoz olgetan egiteko sortutako eremua, non nortasuna garatuko duen.

Umeak olgetarako duen nahia berezkoa izan arren, ludotekaren bidez umearen nortasuna garatzen laguntzeko ahaleginak, jokoaren bidez bideratzen dira. Modu honetara umearentzat atsegina den jarduera bat ikasteko tresna oso garrantzitsua bihurtzen da. Ludoteka ez da umearen denbora-pasarako lekua bakarrik, bere heziketa eta trebakuntzarako tresna oso garrantzitsua baino.

Askatasuna da ludotekaren printzipioa, baina funtzionamendu eta aprobetxamendu handiagoa ateratzeko begiralea beharrezkoa da. Honek, baliabideak zeintzuk diren azalduko dizkio umeari, eta trebetasunak garatzen lagunduko dio; eta hasieran begiralea egongo bada ere, garapenerako umeak askatasun osoa izango du.

HELBURUA

Gorago esandakoarekin lotuta helburuak honako hauek lirateke:

Gurasoen lan eta famili uztarketa ahalbidetzea.

Haur eta gazteei espazio hezigarria eskaintzea, non errespetua, hezkidetzatza, kooperazioa, kritikotasuna, eta ingurumenarekiko begirunea bezalako baloreak sustatuko diren.

NORENTZAT

3 eta 12 urte bitarteko haur eta gazteak dituzten familia elorriar guztientzat.

Kanpokoak izan arren Elorrion ikasten duten 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gazteak dituzten familientzat.

FUNTZIONAMENDUA

Ludoteka 2009ko urria eta 2010eko ekaina bitartean zabalduko da, honako egutegi honen arabera:

Zabalik egongo da:

Hezkuntza

Sasoia: urriak 20 - ekainak 25.

Ordutegia: arratsaldeko 5etatik iluntziko 8ak laurden gutxiago arte.

Egunak: astelehenetik barikura.

Adin-tartea: 3 eta 12 urte.

Gehienezko ume kopura batera ludotekan: 48 ume 3 urtetik 7ra bitartekoak, eta 15, 8 urtetik 12ra bitartekoak.

Itxita egongo da:

Sasoia: ekainak 25 - irailak 30 (biak barne).

Urriak 12

Abenduak 8.

Abenduak 24 – urtarrilak 6 tartea.

Martxoak 19.

Martxoak 29 – apirilak 11 tartea.

INSKRIPZIO-EPEA

Inskripzioak ez dira urte batetik bestera gordeko, berritu egin behar dira.

Inskripzioa 09/10 ikasturterako egiteko bi aukera egongo dira:

Lehenengo aukera: 2009ko irailaren 16tik 30era arte.

Bigarren aukera: abenduaren 16tik 30era bitartean.

Inskripzioa udaletxeko erregistro orokorrean egingo da. Inskripzioa behin betiko izango da (ez da bazarik onartuko).

INSTALAZIOAK

Ludoteka San Juan kaleko 19an dago.

Hezkuntza

BEGIRALEAK

3 eta 7 urte bitarteko 12 umeko talde bakoitzerako begirale bat.

8 eta 12 urte bitarteko 15 umeko talde bakoitzerako begirale bat.

METODOLOGIA

Metodologia lantzerakoan, honako metodologia honetan oinarrituko da:

Jolas librea.

Metodologia gidatua, astean behin.

Komunikazio asertiboa.

Elkarbizitzarako ohitura.

ESPAZIOAREN ANTOLAMENDUA

Espazioa, zerbitzua eskainiko duen taldeak aurkeztuko duen programaren arabera antolatuko da.

ARAUAK

Ludotekara datorren umeak autonomia izan behar du komunera joateko, beraz, ez da onartuko pixoihalik duen umerik.

Umea ludotekara sartzekoan txartela erakutsiko du eta lekuri badago (48 ume da gehieneko kopurua txikien taldean, eta 15 nagusien taldean) sartu egingo da. Lekuri ez balego, zain egon beharko du lekua egin arte, eta ilara errespetatuko du.

Umea ludotekara bakarrik sartuko da, hau da, daramanak ludotekako atean agurtuko du txamarra, motxila, euritakoa eta antzekoak kendu eta gero.

Ludoteka ez da merienda-lekua, ondorioz, debekatuta geratuko dira meriendak, gozoak, ...

Ludotekan bertako jostailuak daudela ohartuta, ez da onartuko umearen jostailurik, ez eta bertakorik etxera eroatea.

Hezkuntza

Ludotekan ez da onartuko poltsikoko telefonorik.

Ludotekan ez dira onartuko ez eta ere, erasoak, edo burrukak.

Umearen bila nagusi bat doan kasuan, inskripzio-orrian zehaztutakoetako batekin baino ez da joango ludotekatik (umearen bila zehaztu ez den bat doan kasuan, sinatutako baimena erakutsiko dio begiraleari).

Beharrezkoa izango da isiltasuna errespetatzea, kultur etxeko dinamika ez apurtzeko.